

Hizkuntzaren berreskurapena Fishmanen arabera

Zalantzarik gabe, arretaz irakurri behar dira Joshua Fishman jakintsuaren izkribuak oro; bera bait da soziolinguistikaren alorrean ikertzapena gehienik bultzatu duteneko bat.

Hori dela-ta "Journal of Multilingual and Multicultural Development" aldizkarian berriki argitaratu duen idazlanak (ikus "What is reversing language shift (RLS) and how can it succeed?"; Vol.11, n. 1/2, 1990; 5-36 orr.) euskaltzale guztion arreta biltzea litzateke normalena. Galdera horretxan inguruan jokatzen bait da euskararen etorkizuna. Alegia: nola segurta genezake gure nazio-hizkuntzaren geroa? ez da galdera makala!

Eta inglesezko testua zuzenki baliatzeko aukera izango ez dutenen zerbitzutan, hona hemen, laburki, Fishmanen ildo nagusia.

Zein hizkuntzaz ari da Fishman?

Hauxe da hautapen nagusia, eta hauxe ere, funtsean, idazlanaren ardatza. Badaki ongi Yeshive University-ko ikertzaile famatuak hizkuntza trukea moduan barrena normalean nola mamitu izan den: indarraren poderioz. Hizkuntzarik gehienak zapalketa hutsez desagertu dira kondairan barrena. Ipar-Ameriketako indioenak, adibidez: Hego-Armenian, esate baterako.

Zenbait aldiz, bide beretik, indarka hizkuntza bati bere *funtzio nagusiak* ukatuz lortu da hizkuntza zapalduen desagertzea: glotopolitika maltzur baten bidez, esate baterako; edo-ta giza migrazioaren bidez (Estonian eta Letonian, adibidez, hauxe izan da herri horien hizkuntzak arrisku larritan jarri dituen jokabidea).

*Hizkuntzarik
gehienak zapalketa
hutsez dagertu dira
kondairan barrena,
batzutan are
benetako
genozidioen bidez
lortu da hizkuntzen
trukea*

Fishmanek, berariaz zalantzarik gabe, ez ditu gertakari soziolinguistiko nabarmen hauek aipatzen ere. Gogoan bide du oso bereziki Irlandako kasua. (Eta, beraz, euskaldunok ere gogoan bide gintuzke).

“Legetasunean” desagertzen ari diren hizkuntzak bide dauzka gogoan. Eta, artikulua haseran, esan ere egiten du garbiki zein hizkuntzari buruz ari en: “errealismoz elebitasuna diglosiarekin besterik irits ezin daitekeen kasuetan”.

Hitz batez: Fishmanek aztertzen duen prozesua *elebitasun diglosiko* “on” batera heltzeko plangintzaz mamitua da.

Eta, jakina, gure herrian batez ere, ikuspegi horrek hotz utz ditzake batzu; “diglosia” bera azkarki astindua eta kritikatu izan baita urtetan barrena! “Zer, ba?” -esan dezake norbaitek- “Orain diglosia helburu?”.

“Diglosia” hitzaren polisemiaren azterketak urrutira

eramango gintuzke. Gure herrian duguna egoera diglosikoa ez dela esan behar genuke, hasteko; eta elebitasun handirik ere ez dagoela (zenbat gara, bada, elebidun Euskal Herri honetan?). Utz ditzagun arazo horiek beste baterako.

Baina funtsezko ohar hori ahortzi gabe: fishmanek *elebitasun diglosikoa* hartzen du helburutzat: A hizkuntzak funtzio batzu beteko lituzke, B hizkuntzak beste batzu. Eta elebitasuna, jakina, oso zabala izango litzateke. Fishmanek ez digu hau artikulu horretan zehazten: “*where bilingualism with diglossia is all that can be realistically attained*” (5. orr.). Besterik ez.

Fishmanen eredua

Helburu horri buruz abiaturik, Fishmanek zortzi urrats (“stage” dio berak) bereizten ditu; eta “8”, “7”, ... “2” eta “1” bataiatzen ditu. Alderantziz, alegia. Lortu behar den lehenengoari, beraz, “8” deritzo; honen ondoren, “7” urratsa. Eta abar.

Sarrera gisa Fishmanek egiten dituen oharra (ohar historiko-filosofikoak), oso interesgarriak dira; eta oso garbi uzten dute Fishman gizona nolakoa den. (Ez lehenengo aldiz, egia esan: Fishmanen lanak pittin bat ezagutzen dituztenek ongi dakite herri zapalduetako beraren grinak sustrai sakonak dituela; eta “modernokeriekiko” arbuioa ere tinko sustraiturik bizi dela Fishmanengan).

Oso iruzkin mamitsuak, beraz; baina hemen zehazki ezin ekarriak. Fishmanek ongi daki hizkuntza “txiki”en aurka esan ohi dena: hizkuntza ukatuekiko jaiera horretan, joera “anti-moderno, anti-intelektual, irrazionala, anti-aurrerazalea eta anti-hiritarra” somatu uste dute zapalketa ontzat ematen dutenek. Gu, berriz, Fishmanen hitz berberak erabiliz, “mesianikoak” gara, “soluzio

*Zenbait aldiz, bide
beretik, indarka
hizkuntza bati bere
funtzio nagusiak
ukatz lortu da
hizkuntza zapalduen
desagerpena:
glotopolitika
maltzur baten bidez*

mistikoak" bilatzen ditugu; azkeneko "dinosaurio" iraunkorren parekoak omen gara. Eta abar. "Talde-mugak bermatzeko borroka besterik" ez dagoen gure borrokan, "atzerakoikeria" besterik ez dute ikusten zapaltzaileen aldekoek.

Bego hori horretan, dena dela, eta goazen zortzi urrats horietara.

"8" urratsa (lortzeko lehendabizikoa)

Geure hitzez azaltzekotan, hau esango genuke: urrats honetan hizkuntzaren 'corpus'a zehaztu behar da. Hitz batez: finkatu eta hedatu nahi den mintzaira zedarritu behar da; horretarako gramatika, fonologia, eta abar, zehaztu behar dira.

*"Talde-mugak
bermatzeko
borroka
besterik" ez
dagoen gure
borrokan,
"atzerakoikeria"
besterik ez dute
ikusten
zapaltzaileen
aldekoek*

Bertako dialektoetako bat hautatuz eta osatuz; edo-ta kanpotik ekarritako dialekto bat onartuz. Honi buruz arrisku bat azpimarratzen du Fishmanek: hautatutako "corpus" hori arrotzegi gertatzen baldin bada, sasikeriaren arazoa ager daiteke; herriak hizkera hori egiazkotzat hartu ez, eta prozesua gaizki abiatzea. (Hauxe gerta dakieke kosovotarrei eta galiziarrei, adibidez, albaniera eta portugalera oinarritzat hartzen badira).

Beste hitzez esanda, beraz, eta guri dagokigunez, lehenengo urratsa *batua* hautatzea eta zedarritzea zen.

Pausu hau eman aurretik, dena dela, berezketa lana egin behar da; ardaztat hartu behar den hizkera eta nagusitzen ari den hizkuntza *desberdinak* direla azaltzeko. (Guk, euskaldunok, jakina, ez dugu batere arazorik honetan, alde batetik; nahiz batzuren joera ezagun hori, "el castellano es una lengua tan vasca como el vascuence, y nacido en Vasconia exactamente como el euskera" alegia, abiaburuko indarraldia nahas badezake ere). Birlanda ditzagun Fishmanen hitzak:

"The premises that Xmen are not Ymen, and that Xish culture culture (daily and life cycle traditional observancies, distinctive artifacts, beliefs and values, exemplary litterature, art, music, dance, etc.) *is not Yish culture*, must not be skipped over" (17. orr.).

Berreskurapenaren haseran, beraz, garbi utzi behar dugu hemen euskaldunak eta erdaldunak *desberdinak* direla. Bestela, herriak ez du sekula ulertuko zergatik edo zertarako behar den galtzen ari den hizkuntza berreskuratu. Bestela (Fishman mintzo) "berreskurapenerako ahaleginak *eztabaidatuak eta ukatuak* izango dira barrutik" (19).

Garrantzi handia ematen dio Fishmanek alde z aurretikako *argikuntza lan* honi; lehenengo pausua, horretara (Batuaren hautaketa), *fonologia* barne (19), behar bezala abiatzeko.

Urrats honetan, dio Fishmanek, hizkuntzalariek dute parte nagusia, baina helburua, urrats honetan, ez da lan monografikoa edo testu-liburua, bakarrik; baizik eta *gizarte-mugimendua* ere mamituz joatea ("social movement").

Urrats hau Euskal Herrian ongi aurreratua bada ere, *ahozko kodigoaren* behar gorria nabaritzen da gaur (phonology, intonation and prosody" dio Fishmanek).

"7" urratsa

Hizkuntza osatzerakoan, parte handia dute hizkuntza ongi ezagutzen duten pertsona zaharrek ("the elerly population") eta pertsona helduek. Hain zuzen ere, helduen **parte-hartze** honek poz handia eman diezaieke; eta abiatzen den berreskurapenaren prozesuan herria gogozago sartu.

Finkatu eta hedatu nahi den mintzaira zedarritu behar da; horretarako gramatika, fonologia, eta abar, zehaztu behar dira. Urrats honetan, dio Fishmanek, hizkuntzalariek dute parte nagusia

Urrats honetan haxe izan daiteke arrisku nagusia: helduen hizkuntza-laguntza hau eguneroko gizarte-bizieratik at agertzea.

“6” urratsa

Garrantzitsuena, Fishmanen ustez hizkuntzaren erabilpena *familian, lehen auzokoetan eta gertuko komunitatetxoan* bermatzea da. Haxe da berreskupenaren *bihotza bera*, Fishmanen ustez (“the heart of the entire RLS venture”, 20). Maila horretantxe mamitzen bait da *eguneroko bizia*; eta maila horretantxe gauzatzen bait da *belaunen arteko* jarraitasuna.

Urrats hau segurtatzen ez bada, alferrik da gainerakoa.

“5” urratsa

“Corpus”-a
zehazteko urrats
hau Euskal
Herrian ongi
aurreratua bada
ere, ahozko
kodigoaren behar
gorria nabaritzen
da gaur

Hizkuntzan egindako *alfabetakuntza*. Eskola, hitz batez. Baina ez eskola bakarrik. *Aho bidezko* hizkuntz ikasketa *osatzeko* erabiltzen diren irakats tresnak sar daitezke hemen. (AEK eta HABE, hitz batez, bete betean sartzen dira atal honetan). Lau urrats hauek osatzen dute RLS delakoaren “programme minimum” esan dezakeguna (22).

Honetarako, dio Fishmanek, eta *baldintza politikoak* ikutuz, aski da aginte ofizialak halako “diglosia” sistema onartzea; *goiko funtzioak* hizkuntza nagusiari eman arren.

Baina “Xmem-via-Xish” helburua amore-eman ezinezkotzat jo behar da (“euskaldunak euskaraz” leloa egiten du bere Fishmanek).

“4” urratsa

Honetan hasten da Fishmanek “zati azkarra” dei daitekeena. Atal honetan *irakaskuntza* sartu behar da.

Alegia, eskolatik aurrerako eskolak eta ikasguak.

Hau oso garrantzitsua da, jakina. Baina aurretik "6" urratsa bermatu ez bada (alegia, familia bertako lagunartea eta lekuko bizimolde arrunteko mundua), alferrik izan daiteke. Irakaskuntza bakarrik ez da aski, Irlandako porrotean garbi ikusi denez ("The Irish experience alone should disabuse us of that fallacy", Fishman, 24).

Irakaskuntza beharrezkoa da, baina ez da "panacea orokorra". *Gizarte-giroaren* laguntza behar da osoki.

"3" urratsa

Alor hau *lan munduari* dagokio. (Quebec-tarrek ere sekulako garrantzia eman diote "langue au travail" arloari). Alor honetan egiten den lana, izugarri garrantzitsua da hizkuntzaren berreskurapenerako ("tremendously influential setting". 24).

Hala ere, urrats hau ematea gero eta zailagoa da gaurko munduan:

a) Gero eta empresa multinazional gehiago dago, eta zail da berorien hizkuntz praktikan sartzen; b) mundu hori, lanarena alegia, eta "6" urratsekoa (familia, lagunartea, auzoa) elkarrengandik urrun daude oso, eta bien arteko lotura oso zaila da.

Urrats hau oso garrantzitsua da, hitz batez; baina "6" urratsarekiko loturari eusten zaion ber bakarrik.

Zerbitzuen eta lekuan lekuko adarretan hizkuntzaren erabilpena bermatzea guztiz garrantzitsua da; batez ere entpresako hizkuntz politika orokorra menderatzerik ez dagoen firmetan.

*Garrantzitsuena,
Fishmanen ustez
hizkuntzaren
erabilpena
familian lehen
auzokoetan eta
gertuko
komunitatetxoan
bermatzea da.
Hau da
berreskuperaren
bihotza bera*

*Aurretik familia
bertako
lagunartea eta
lekuko bizimolde
arrunteko mundua,
bermatu ez bada
irakaskuntza
bakarrik ez da
aski, Irlandako
porrotean garbi
ikusi denez*

“2” urratsa

Herriarekiko harreman zuzenean ari diren *zerbitzu publikoetako alorra*; gehi bertako *mediak* (bertako irratia eta prentsa, eman dezagun).

Alor honek bere garrantzia izan arren, “6” urratsean azaldutako alorrean lortutakoaren baitan ere badago. Errazago bait da, Fishmanen ustez, telebista bat eraikitzea, familietan zaitu nahi den hizkuntzaz mintzaraztea baino (25). Gakoa, berriro ere, balaunen arteko kateari eustea da.

*Azken urratsa
instituzioen mailan
kultur-autonomia
lortzea da; eta
horretara
irakaskuntza
ertaina eta
unibertsitatea, are
gobernuaren goiko
mailako
administrazioa
ere, bertako
hizkuntzaz egitea*

“1” urratsa

Instituzioen mailan *kultur autonomia* lortzea; eta horretara irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea, are gobernuaren goiko mailako administrazioa ere, bertako hizkuntzaz egitea. Baina, beti ere, “6” urratsa betez gero. Bestela ez.

Gakoa familia izanik, familiak gaur jasaten duen kinka gaiztoak oso zailtzen du hizkuntza zapalduen defentsa (gaur egun, eta Estatu Batuei dagokienez, familien %7-tan bakarrik daude etxean seme-alabekiko harreman jarraikian bi gurasoak batera).

Bukatzerakoan, azkenik, Europako zenbait hizkuntzaren geroaz bere eritzia eskaintzen du Fishmanek. Segurutzat dauzka, adibidez, hebraiera, kataluniera (hegoaldean), eta frantziara Quebec-en. Euskara “salbagarri” iruditzen zaio; eta irlandera, “egonkortua” (= stabilised).

Lan hau zehazkiago ezagutu nahi izatekotan iturrira jotzea besterik ez dagoela azpimarratuz, badu irakurleak zer pentsaturik.

Txillardeg